

MASTODON.EUS

Euskaraz mintzo den eta izaera propioa duen sare sozial libre eta irekia sortu da

Nork ez du Twitter edo Facebook ezagutzen? Sare sozialak dira, enpresa

handiak. Askoz ere ezezagunagoa da Mastodon izeneko, dagoeneko bi milioitik gora erabiltzaile baditu ere. Sare horren baitan milaka instantzia sortu dira, haietako batzuk euskaraz mintzo direnak, hala nola, oraindik orain, Mastodon.eus.

Joan den asteazkenean aurkeztu zuten Bilbon Mastodon instantzia hori. Zergatik beste sare bat, aipatutakoak eta gehiago izanda, ordea? Arrazoi bat baino gehiago dituzte ha-

 **JENDARTEA** / Xabier Izaga Gonzalez

Asteon bertan aurkeztu dute Mastodon.eus, Mastodon sare sozialaren baitan sortutako instantzia, «euskaraz mundura salto egiteko». Milaka instantziarekin federatuta, guzti-guztiekin komunikatzeko aukera dago, eta erabiltzaileek beraiek erabakitzen dute beren datuen erabileraren gainean.

ren sortzaile eta erabiltzaileek. Mastodon.eus instantziak bi berezitasun nagusi ditu: euskarazkoa da eta Interneteko euskal komunitateak sortu du komunitatearentzat.

Mastodon.eus instantziaren aurkezpena, Euskaltzaindiaren egoitzan. MASTODON.EUS

Euskal hiztunentzat ez ezik, edonorentzat ere zenbait abantaila ditu; esate baterako, ez du ordaindutako publizitaterik eta bertan ez dituzte erabiltzailearen datuak saltzen; hau da,

Iratxe Esnaola irakasle eta GARAKo kolaboratzaileak asteon bere zerrendan zioen moduan, Mastodon.eus ez da «gure datuak ustiatzetik bizi», eta «teknologiak pertsonen eta jendarteen garapenera begira jarri behar» diren ideiari lotua da.

Mastodonek software librea erabiltzen duenez, deszentralizatua da, Twitter edo Facebook ez bezala. Hartara, datuen kudeaketa, pribatutasuna, erabilerara-arauek eta hizkuntza komunitatea erabiltzaileen esku daude. Instantzia bakoitzak izaera propioa du eta zeinek bere kudeaketa egiten du, bere arauak jarrita.

Sare sozial deszentralizatua izateak ez du esan nahi osatzen duten instantziak ez daudela elkarren artean komunikatuta, ordea. Mastodon.eus-eko erabiltzaileek beste edozein instantziatako erabiltzaileei jarraitzeko aukera dute, baita haiek Mastodon.eus-ekoei jarraitzekoa ere, jakina. Izan ere, instantzia horiek guztiak federatuta daude. Twitter, Facebooken eta gainerako sare sozial zentralizatuetan enpresa horien erabakien arabera dago hizkuntza; horren ondorioz, Twitterren interfaze berritik euskara desagertu da eta Googlek iragarkiak euskaraz jartzea debekatu du. Izan ere, zerbitzu horietan instantzia bakarra dago.

Bestetik, Mastodonen instantziak zabaltzeko aukera mugagabea dago, kode irekiko baita.

ELKARLANEAN ABIATUA

«Mundura euskaraz salto egiteko» asmoz, PuntuEUS eta Azkue fundazioek, Dinahosting eta Iametz enpresek, Talaios kooperatibak, Laborategia2.0 blogaren kudeatzaileak eta Librezaleko aktibistek sortu dute,




elkarlanean, Mastodon.eus. Diotenez, denboran irauteko helburuarekin abiatu da, euskarazko komunitatearen inguruan dauden eta sor daitezkeen bestelako instantziekin elkaritzeko borondatearekin.

Euskaltzaindiaren egoitzan egin zuten aurkezpenean, euskal instantzia horren zenbait ordezkari izan ziren. Eli Pombo Iametzako ordezkariak egitasmoaren hasiera nola gogoratzen duen kontatu zuen: «Aurtengo urte hasieran gure lantaldeko kide den Asier Iturraldek eman zigun sare sozial federatu honen berri. Asier da Argia.eus-eko lanez arduratzen dena eta Argiarekin hitz egin ondoren Mastodon Social instantzian Argiaren kontua zabaldu zuten. Iametzarena ere zabaldu zuen, noski. Gure artean komentatzen hasi ginen interesgarria izango zela euskal instantzia bat sortzea, baina, era berean, garbi geneukan hori enpresa batek edo eragile bakar batek ezin zuela sortu. Norra jo pentsatzen jarrita, bururatu zitzaigun PuntuEUS Fundazioarekin hitz egitea. Josu Waliñok beste hainbat erakunde eta eragilerekin hitz egin zuen. Azkue Fundazioa ere ari zen garai berdinean gai honi buruz hitz egiten Osoitz Elkorobarrutia ekintzailearekin eta hala guztiok harremanetan jarrita, Mastodon.eus izango zenari forma emateko bilerak egiten hasi ginen».

Josu Waliño PuntuEUS Fundazioko ordezkariak esan zuen Mastodon.eus euskal erabiltzaileen komunitatearen esku gelditzen dela, eta komunitate horrek erabakiko duela Mastodon.eus zer izango den eta nola osatuko den aurrerantzean.

Asier Iturralde Iametzaren presakoak esan zuenaren arabera, Mastodon sare soziala ikus-



puntu humanoago batetik sortu da, «beste sareen akatsetatik ikasiz. Erabiltzailea pertsona bat da, ez da produktu bat».

Instantziaren gaineko informazioa eta nahi duenak nahi duen instantzian izena emateko

Goian, kontua sortu aurretik, eta, behean, «toot» bat idatzita. MASTODON.EUS

jarraibideak <https://kaixo.mastodon.eus> helbidean daude eskuragarri.

KONTUA NOLA SORTU
Mastodon.eus-en kontua sortzea oso erraza da. Lehenik, era-

MASTODON.JALGI.EUS ERE, ABIAN

Edozein talde zein norbanakok dauka Mastodonen bere instantzia propioa sortzeko aukera. Hala egin du Jalgi.eus ekimenak. Izarkom Euskal Herriko Telekomunikazio Operadore Kooperatiboak sortu zuen Jalgi.eus, «enpresa transnazionalak garatu eta kontrolatzen dituzten ohiko zerbitzuetatik ihes egin eta alternatiba askeak euskaraz eskaintzeko».

Joan den irailean, Mastodon.jalgi.eus instantzia aurkeztu zuen Izarkom. «Teknologia, Telekomunikazio eta Energia burujabetzaren garrantziaz jabetuta, hauek

elkarrekin uztartu eta gizarte burujabetaren norabidean», honako baliabideak erabiltzen ditu instantzi horrek: zerbitzarien Internetarako konexioa, Izarkomen Telekomunikazio Operadorearen bidez; zerbitzarien ostatatzea, Herrizoma datu-zentro autonomo eta banatuen bidez; zerbitzarien argindarra, GoiEner Energia berriztatzaileen kooperatibaren bidez, eta Instantziara sarbidea, Internetez ez ezik, Guifi.net sare ireki, aske, neutral eta partekatuen bidez ere egin daiteke.

biltzaile-izena, helbide elektronikoa eta pasahitz bat idatzi behar da. Izena eman duenak mezu elektronikoa jasoko du helbide elektronikoa berresteko, eta, behin hura baieztatuta, kontua sortuta dago.

Hautatutako erabiltzaile-izena eta pasahitzaren bidez saioa has daiteke, *toot* izeneko mezua idazten. Izan ere, Mastodon argitaratutako mezuei *toot* esaten zaie ingelesez, komunitateak euskarazko hitz bat adosten ez duen bitartean behinik behin. 500 karaktere arteko *toot*-ak idatz daitezke, eta irudiak ere gehitu daitezke.

Ezarpenen atalean, kontua pertsonalizatzeko zenbait aukera daude. Profila aldatzeko atalean, beste edozein sare sozialetan bezala, izena, biografia, argazkia eta goiburuko irudia alda daitezke, eta profilean agertzea nahi den lau elementu ere gehitu daitezke etiketarekin/edukia pare bezala, adibidez, webgunea/adibidea.eus. Kontua giltzapetzeko zein beste hainbat ezarpen konfiguratzeko aukera ere eskaintzen du.

Hobespenak atalean, alde batetik, hizkuntzarekin zerikusia duten hobespenak alda daitezke, eta, bestetik, pribatasunarekin lotutakoak, hala nola mezuen pribatasun maila, erabiltzaileak nor jarraitzen duen eta nork jarraitua den profilean agertzea nahi den ala ez...

Komunitate bakoitzak egin ditzakeen aldaketan artean emotikono berriak sartzeko aukera dago. Euskal instantzian ikurrina jartzeko aukera dago, edota ahobizi eta belarriprest figurak ere, eta emotikono berriak ere jarriko dira, «euskaldunen eskaerei erantzunez».

Zalantzaren bat duenak «Ohi-ko galderak» orria oso lagungarri izango du.

DABID MARTINEZ

SOFTWARE LIBREAREN ALDEKO EKINTZAILEA

«Mastodon.eus euskaratik sortu eta lokaletik globalera eragin dezakeen zerbait da»

Dabid Martinez Labo-
rategia 2.0 blogaren
kudeatzailea da. Bere
blogean dioenez,
software librearen
defendatzaile sutsua
da, «ideiak askeak izan behar direla
uste dudalako». Mastodon.eus instan-
tziaren sortzaileetako bat da, beste
zenbait norbanako, erakunde eta en-
presa zein kooperatibarekin batera.
Aurkeztu berri duten egitasmoaz min-
tzatu gara berarekin.

Zer du berritik Mastodon.eus instan-
tziak?

Funtsean software librea erabiltzen
duen Mastodon instantzia bat da, eta
software hori librea izateak horren
abantaila guztiei heltzea ahalbidetzen
digu. Alde batetik, guk oinarri duguna,
edozein helburu dela softwarea disple-
gatzeko eskubidea daukazu, eta guk,
horretaz baliatuz, erabaki genuen eus-
karatik euskararentzat edo euskal ko-
munitatearentzat Mastodon.eus izene-
ko sare soziala inplementatzea, ezen ez
garatzea, ez baita gauza bera, eta ber-
tan sortu daitekeen eta gaur egun sor-
tzen ari den komunitateari eustea eta
berau dinamizatzea.

Gure helburua zen software librea
oinarritzat hartuz euskara eta euska-
ratik mundura ateratzeko aukera iza-
tea; hau da, ez daukagu zertan enpre-
sa neoliberalak erabiltzen dituzten
edo printzipioz doan eskaintzen diz-
kiguten produktuak erabili euren pa-
radigmetan. Paradigma horietatik at
atera nahi genuen komunitate bat, bu-
rujabetasunez, guk planteatzen ditu-
gun proiektuekin, ideiekin eta oina-
rriekin funtzionatuko duena. Kasu
honetan, Mastodon instantzia askoz
gehiago daude eta Mastodon.eus fed-
ibertso edo unibertso horretako instan-
tzia bat da, euskaldunontzat garatu du-

guna, baina esan beharra dago euskal-
dunontzat badagoela beste bat ere:
Mastodon.jalgi.eus. Horiek ere erabaki
zuten instantzia bat sortzea, eta, Mas-
todon sarea federatua denez, horrek
ahalbidetzen digu munduan dagoen
beste edozein Mastodon instantziare-
kin komunikatzea. Hori horrela, Mas-
todon.eus-etik Mastodon.jalgi.eus-eko
erabiltzaileak jarrai ditzakegu, eta
Mastodon.jalgi.eus-etik, modu berean,
Mastodon.eus-eko erabiltzaileak jarrai
ditzakegu; eta gure arteko elkarrizke-
tak sortu ahal ditugu, instantzia des-
berdinen artean. Horretan datza, fun-
tsean eta labur-labur, federazioa.


Euskara baino ez duzue erabiltzen?

Esango nuke Mastodon ez dela baka-
rrik euskaraz hitz egiteko edo euskara-
ren komunitatearentzat sortutako pla-
taforma bat. Gure helburua da
mundura ateratzea, beste Mastodon
instantzia batzuetako jarraitzaileen be-
rri izatea, euren edukia interesatzen
zaigulako, baina geure desberdintasun
horrekin eta euskaldunak garela nabar-
mentzeko helburuarekin. Euskaratik
sortu eta lokaletik globalera eragin de-
zakeen zerbait gara.

Izan ere, instantzia hau gustuko duen
erdaldunak euskarazkoa dela ikusita

galdetuko du derrigor euskaraz idatzi
behar duen.

Nire ustez, gure helburua izan behar
da, eta hau uste pertsonala da, ahalik
eta gehien euskaraz idaztea eta horre-
tarako aukera izatea; hau da, euskaldu-
non artean euskaraz egitea, are gehia-
go orain, Euskaraldian gaudela. Baina
ezin dugu, nolabait esatearren, eta
agian ez da hitz egokiena, ghetto bat
sortu, ezin dugu euskaldunontzat ba-
karrik den zerbait sortu, zeren helbu-
rua hori izango balitz, Euskal Herritik
kanpo izaten diren elkarrizketa eta ez-
tabaida interesgarriak galduko geni-
tuzke. Nik, adibidez, herri katalanetan
lagun asko dauzkatz eta horietako asko
jarraitzen ditut Mastodon.cat-en. Gure
artean bi aukera ditugu, edo ni katala-
nera moldatzen naiz, edo eurak eta ni
moldatzen gara gaztelaniara, eurak
euskarara moldatzea zailagoa baita.
Nik inoiz katalanez argitaratzen ditut



Argazkiak: MASTODON.EUS

neure *toot*-ak, baina gaztelan-
niaz ere egiten dut, baita inge-
leseztan ere noiz edo noiz. Nire
edukiaren %90 seguru nago
euskarazkoa izango dela, baina,
noizean behin, kanpoko jende-
arekin, euskaldunak ez diren
beste instantzia batzuetako
erabiltzaileekin ere komunika-
tu behar dudanez, ez dut zer-
tan neure burua mugatu eus-
kara hutsera.

**Mastodon.eus esan liteke hiz-
kuntzaren inguruan, edo eus-
kaldun komunitatearen ingu-
ruan sortu dela, baina badira
instantzia batzuk gai jakinen
inguruan eratu direnak.**

Bai, horixe da. Mastodonen ba-
daude askotariko instantziak;
adibidez, software librean ari
garenontzako instantzia bat da-
go edo, hobeto esateko, kasu ho-
netan, instantzia asko. Askotari-
ko gaien inguruko instantzia
pila bat dago. Gurearen berezi-
tasuna da euskaratik euskara-
rentzat eta euskal komunitate-
arentzat sortutako instantzia
dela, eta ikusgarritasuna eman
nahi diogula gure kultur ondareari zein
gure hizkuntzari Internet bitartez.

**Erabiltzaileen datuak ez ditu bestek
erabiltzen.**

Guk ez diogu Mastodon.eus-en argita-
ratzen den informaziorik inongo en-
presari saltzen. Jakina, zerbitzaria en-
presa batean dago, eta zerbitzari
horretan informazioa badago, baina
hori ez diegu Facebook, Twitter edo pu-
blizitatea egiten duten enpresei sal-
tzen. Gure helburua ez da honekin diru
etekin nabarmen bat ateratzea beste
sare sozial askok egiten duten moduan,
gu ekintzaileak gara eta hau egiten du-
gu “dena denontzat” filosofiarekin.

**Zer eduki onartzen diren ere ez da
goitik erabakitzen. Japonian Masto-
donek erabiltzaile asko omen ditu,
zenbait sare sozialek hango marrazki
bizidun batzuk debekatu dituztelako.**



Bai, *hentai*, *anime* pornoa batez ere. Sa-
re sozial komertzialetan ezin da horre-
lakorik erabili. Gure kasuan, sexu es-
plizitua duten irudiak argitaratuko
balira, eztabaidatu beharko genuke gu-
re artean zer egin. Baina, adibidez, argi
daukagu ez dugula nahi eduki arrazis-
ta, xenofobo, homofobo, matxistarik...
gure plataforman.

**Beraz, polemika sortu lezakeen eduki
baten inguruan eztabaidatu egingo
zenukete, baina, edonola ere, eraba-
kia ez luke enpresa batek hartuko.**

Guztion erabakia izan beharko litzate-
ke, nire ustez. Gurea askoz antolakun-
tza horizontalagoa da, izan ere, hasie-
ratik esan dugunagatik: ekintzaileak
garelako, fundazioak garelako, ba-
rruan dauden enpresak kooperatibak
direlako, beste planteamendu batzuk
dituztenak. Jakina, euren helburua
etekinak lortzea ere bada, enpresak di-

ra-eta, baina ez da hori bakarrik. Eus-
kararentzat, euskal komunitatearen-
tzat lan egiten duten enpresak dira bai
Talaio bai Iametz. Eta gure berezita-
suna da gauzak behetik gora plante-
tzen ditugula, horizontaltasun osoz;
izan ere, talde eragilean norbaitek par-
te hartu nahi badu, irekita gaude kola-
borazioetara.

**Beste berezitasun bat hizkuntza da,
jakina. Googlek debekatuta dauka
euskarazko publizitatea, eta Twitte-
rrek bere interfazetik kendu du.**

Gure kasuan ez genuke nahi platafor-
ma iragarkiak argitaratzeko erabiltzea,
ez euskaraz ez ingelesez ere, baina ez
dago inongo arazorik euskaraz edozer
argitaratzeko.

**Abantaila batzuk begi bistakoak di-
ra. Hala ere, jende askok, horiek
ikusita ere, eta zuen filosofiarekin**

**bat etorri arren, noraino har-
tzen ditu aintzat kontu bat
leku batean edo bestean za-
baltzeko orduan?**

Hori edozein produktarekin
eta edozein zerbitzarekin ger-
tutzen da. Adibidez, argindarra
bada, badira urte asko Goiener
daukagula gurean, eta seguru
nago oraindik jende askok esa-
ten duela ez dela guztiz fida-
tzen. Zein da ekintzaileon hel-
burua? Jendeari erakutsi behar
diogu zeintzuk diren onura
hauek, zer ekarriko duten eus-
kal komunitatearentzat, zer
esan nahi duen honelako sare
sozial bat Interneten egoteak
eta zein mailatako ikusgarritas-
una ematen digun guri herri
bezala, eta horretaz kontzien-
tziatuta gaudenok nik uste dut
salto egin behar genukeela
Mastodon.eus-era. Horrek ez
du esan nahi Twitter erabiltze-
ari utzi behar diogunik. Twitter
hor dago eta guretzat, gure la-
na, ekintzak, mila gauza susta-
tzeko alternatiba ona da, hori
ez dago ukatzerik. Baina orain
beste bide bat dago, orain beste

plataforma bat dago, beste filosofia ba-
tekin, beste helburu batzuekin eta inte-
resgarria da, agian Twitter kendu gabe,
aukera horri heldzea.

Nabaritu duzue harrera onik?

Mastodon.eus-ek astebetean mila era-
biltzailetik gora lortu zituen, eta ho-
rrek software librearen kasuan badu
meritua, gure herri txiki honetarako
hori sekulako arrakasta da. Jakina, eus-
kalgintzaren laguntza ezinbestekoa
izan da. Baina gure helburua orain
bertara apuntatu diren pertsona guz-
tiek parte hartzea izan behar da; hau
da, eztabaidetan modu aktiboan parte
hartzea. Esate baterako, goizean zure
herrian hitzaldi interesgarri bat dago-
ela gogoratzen bazara, Mastodonen ja-
rri. Twitter barneratu dugun modu be-
rean barneratu behar genuke
Mastodon. Orain helburua, esan beza-
la, parte hartzea izan behar da.